

HAUTESLEEK BOZEN ERABILGARRITASUNA BILATZEN DUTE ETSIPENEZ

Apirilaren 23an presidente berria hautatzeko lehen bozketa egingen da Frantzian. Hamaika dira hautagaiak, baina bostek baino ez dute neurriko aukera. Horietatik hiruk dute podiuma hurbilen: Marine Le Pen, François Fillon eta Emmanuel Macron. Lehena, muturreko eskuinaren ordezkaria da, bigarrena eskuin klasikoarena. Hirugarrena, Frantzia liberalarena. Bera da hautagai indefinituena. Inkestak arabera, bigarren itzulira pasaz gero, Macron izanen da presidente. Frantziako inoizko hauteskunde berezienak eta zalantzarrienak dira horregatik.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

Lehen bozketarako bi aste eskas falta dira eta hiru hautesleetak batek baino ez du erabaki, boza nori emanen dion. FNko hautagai Marine Le Pen bigarren itzulian izanen da, inkestak bozen %25 iragarri diote eta. *En marche!*-ko Emmanuel Macron Le Penen mailan dago, bozen %25a jasoko baitu. *Les Républicains*-eko François Fillon (LR) da hirugarrena, aurreko horiengandik zazpi puntura: bozen %18 jaso lezake. Itxura batez, lehen biak pasako dira bigarren bozketara, alta, Macronen aldeko bozemaileen fidelotasuna ez da guztizkoa. Bozak inoiz baino “likidoagoak” dira. Frantziako presidentetzarako hauteskunde hauek paradoxikoak dira inondik ere.

Inkestak honelako emaitzak iragarzen dizkiete gainerako hautagaiei: Jean-Luc Mélenchon, %15. Benoît Hamon, %10. Aurreko hiruekin batera favoritoak dira. Haatik, gezurra badirudi ere, badaude ere beste sei hautagai: Nicolas Dupont-Aignan, %4. Jean Lassalle, %1. Nathalie Arthaud, %1. Philippe Poutou, %0,5. François Asselineau, %0,5. Jacques Cheminade, %0,5.

Inkestak, inkestak besterik ez dira. Hautagaiekiko bozemaileen erabaki-

tasuna ez da iraganean bezain finko. Halaber, alderdi politikoek bozemaile berrien atxikimendua zehaztugabea da. Bozemaileen ehuneko 60k bozkatuko balu, ustekabeko albiste litzateke. Adituen ustez, abstentzioa %50era hurbil liteke. Areago, uneon, boza emanen duen hautesleen herenak baino ez du erabaki nori eman. Beraz, hautagai favoritoek ez dute bozen aldeko lehia guztiz ebatzia, kanpainan boz asko galdu lezaketek ustekabez, baita asko irabazi ere.

Halaber, ez dezagun ahantz, ekainean Hauteskunde Legegileak izanen dira. Presidente izango denak ezin du kanpaina egin, haiek kontuan hartu gabe. Adibidez, Le Pen eta Macron hautagai favoritoek ez dute ia ordezkariarik Frantziako Legebiltzarrean. Frantziako azken agintaldietan eskuineko LR eta ezkerreko PS alderdiak dira politikagintzaren oinarria. Macron edota Le Pen presidente izateko posibilitetasunak Frantziako politika aro berri baten atarian dagoela ematen du aditzera.

Boz erabilgarriaren etsipena

Ziurgabetasuna nagusi izan da kanpainan, herritarren etsipena agerikoa

da, eta hauteskunde giroa ez da hobetu. Hala ere, hauteskundeak egoki landutako kanpainaren bidez irabazten dira, baita politikarien trebetasunari esker. Programak herrialdea gobernatzeko baino hauteskunderako “bitartekoak” dira. Ukatu gabe, hautagaien programak eskergak direla. Marine Le Penen programan 144 gai aipatzen dira. Hala ere, Europa eta immigrazioa hitzak nagusitzen dira bere diskurtsoan, jakin baitaki horien erabilpenaren arabera lortuko duela boz gehien. Berea omen da programa ekonomiko indefinituena. Bera da herritar gehienengan “beldur” handiena sorrarazten duena, eta bera da frantziar nazionalista sutsuen esperantza bakarra. Le Penek frantziarren identitatearen ahultasuna egungo European jaritzen du ezbaian. Hautagai guztiak dira elkarrekiko arerio, alabaina, Le Pen da beste lau favoritoentzat “etsai” nagusia. Horrek bigarren itzulira pasatzeko indarra ematen dio, eta bigarren itzulian gaitzaile agertzen da Macron edo Fillonen aurrean. Inkestak Le Pen eta Macronen arteko lehia izanen dela aurreratu dute jada: Emmanuel Macron presidente litzateke, bozen %66 jasoko luke.

Macron da presidente izateko aukera gehien duena, baldin eta bigarren itzulira pasatzen bada. Horra Macronen berezitasuna! Eta paradoxikoki ere, Fillon da arerio zuzena. Fillon ordea, "ukitua" iritsi da kanpainara, Hollanden presidenteari haren aurkako "kabinet beltza" muntatu izana leporatu dio, Macronen aldeko apustua egin duela dio *Les Républicains*-en hautagaiak. Fillonen programa ere eskerga da, besteak beste, fiskalitatea bateratu nahi du eta Europakoarekin harmonizatu. Erretreta 65 urtean finkatu eta Hollanden gobernuaren 35 orduko lan-astea kendu nahi du. Horiek guztiak ez dira txartzat jotzen, adituek baina "ez dituzu nola egingen duzun ondo zehazten" aurpegiatzen diote, baina beste hautagaiari ere gauza bera aurpegiatzen diete. Adituak betiere, hautagai bakoitzaren ideologiari atxikiak izan ezean, bistan da. Macronen programan ere fiskalitatea arautzearen asmoa ageri da, berau optimizatzearen beharra. Frantziako BPGaren defizit estrukturalak ez duela %3 gainditu behar dio, baita 2022. urterako %0,5ean ezarriko duela esan ere.

Macron Fillonen fotokopia dela dio Le Penek. Fillonek, berriz, Macron Hollanden oinordekotzat jotzen du. Hollanden ekonomia ministro ohiak, ordea, arazoak ditu Hollanden bost urteko gobernuaren gestioa "ontzat" emateko. Ez da arazo bera duen hautagai bakarra, Hamoni gauza bera gertatzen zaio. Macronek baina, urrats sendoa eman du, lehen ministro ohi Manuel Vallsek babestu baitu presidente izateko. Macronek dio ez dela eskuinekoa ez ezkerrekoa, ezta zentrista ere. Nolanahi den ere, zentristek haren programa ontzat eman dute. UDI alderdi zentristaren aitortu gabeko atxikimendua du Macronek eta MoDem-arena aspaldi jaso zuen François Bayrouren bitartez. Macronek, uneon betiere, hautesle gehien biltzen duena da, baina haren aldeko bozen bi herena baina ez da erabat finkoa. Hautagai guztien artean, bere profila da bitxiena. Politikan ibilbide urriena dauka, baina bera da Frantziako presidente baten erabakietan –arloan ekonomikoan hain zuzen ere– parte hartu duen bakarra, Hollanden magalean jardun baitu azken agintaldian.

Hamon sendo hasi zen kanpainarean, bozen %15 agindu zioten inkes-



Emmanuel Macron.



Marine Le Pen.



François Fillon.

» **Macron edota Le Pen presidente izateko posibletasunak Frantziako politika aro berri baten atarian dagoela ematen du aditzera**

tek, baina azkenaldion, %10era erori da. Vallsen erabakiak hainbat bozemailereren asmoa aldarazi du, antza. Bozen "erabilgarritasuna" haizatu du Vallsek eta horrek amorrua eragin du Hamon hautagai sozialistaren sostengatzaileen artean; Vallsek PS noraezean jarri du inola ere. Macronen ibilbidea erraztu du Eliseora eta Hamon hondoratu. Aldi berean, *Frantzia intsumisioa*-ren lemapean ari den Jean-Luc Mélenchoni nola baiteko bulkada eman dio. Bozen %15 aguratu diote inkestek. Haatik, horiek ez dira nahiko bigarren itzulian egoteko. Mélenchon da hautagai guztien artean "gerri politiko" gehien daukana, kanpainan hobekien moldatzen dena. Bere programan sei proposamen ekonomiko nagusi daude: pobrezia apaltzeko soldatak igotzea, gazteekiko begirunea, 35 orduko lan-astea ongi zehaztea, iraultza fiskala ezartzea, finantzak ongi arautzea eta estatu protekzionistaren ideia berritzea. Hala ere, bere liluramendua ez da aski ezkerreko herritarrek konbentzitzeko, promesen garaia pasa da lur jotako ezkerreko bozemaileentzat. Hamon da horren lekuko. Ehun mila funtzionario gutxiago nahi du estatuaren egituretan. Errenta unibertetsala delakoa ezarri nahi du. Kanpainarean horiek utopikotzat jo zituzten herritar gehienek, orain bere proposamenak aintzat hartuak izan daitezten buru-belarri ari da. Ez dauka lantegi erraza. Bera da faboritoen artean gaizkien paratutako hautagaia.

Hautagaien arteko partida nagusia Macron eta Fillon artean jokatzeko da. Irudi luke, bi horien bozak Le Pen, Hamon eta Mélenchon hautesleen erabakien esku daudela. Ez ditzagun beste sei hautagaiak ahanzi, hala ere. Dupont-Aignan eskuindarrak –Sarkozyren bidaidea iraganen, LRen aurkari sutuena da egun– bozen %4 jaso lezake. Fillonek arerio bat gehiago dauka. Poutou eta Arthaudek bozen %1 jaso dezakete. Beren hautagaitzek ez dute Mélenchon ez Hamon sendotzen. Lassalle, Asselineau eta Cheminade hautagai zentrista, eskuindar eta liberala hurrenez hurren, eskuineko disidentziaren ordezkariak dira. Alegia, bozak ez dira ebatzita. Hamaika lagun arteko lehiakortasunak hautagai nagusiak ahultzen dituzte. Hautesleek beren bozen "erabilgarritasuna" bilatzen dute etsipenez. ■